

EUSKADIKO MEDIKAMENTUEN GAINEKO IKERKUNTZA BATZORDE ETIKOA

2021. URTEA

Harremanetarako datuak

Helbidea: Donostia kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz

Helbide elektronikoa: ceic.eea@euskadi.eus

Webgunea: <https://www.euskadi.eus/ikerketa-klinikoetarako-batzorde-etikoa/>

<https://www.euskadi.eus/ikerketa-klinikoetarako-batzorde-etikoa/>

Telefono-zk.: 945019296

1. E-mIBEren HISTORIA

Urtarrilaren 11ko 3/2005 Dekretuak sortu zuen Euskal Autonomia Erkidegoko Ikerketa Klinikoetarako Batzorde Etikoa, eta dekretu horren bidez abiarazi zen Euskal Autonomia Erkidegoko IKBE, Eusko Jaurlaritzako Osasun Saileko Farmazia Zuzendaritzari atxikia, EAEn zentro sanitarioetan sendagaiekin eta produktu sanitarioekin egiten diren saiakuntza kliniko multizentriko guztiak eta zentro sanitarioek edo beste zentro batzuek ohiz kanpo bidaltzen dituztenak ebaluatzeko, Euskal Autonomia Erkidegoan egiaztatuak, bai eta Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuaren zentroetan eta Euskal Autonomia Erkidegoko titulartasun pribatuko zentroetan sendagai eta produktu sanitarioekin egindako behaketa-azterlan prospektiboak ere.

2011ko urrian, Ezagutzaren Kudeaketa eta Ebaluazioko zuzendariaren ebazpenak argitaratu ziren. Haien bidez, tokiko batzordeak berrakreditatu ziren saiakuntza kliniko unizentrikoen jarduketa-eremurako, behaketa unizentrikoak baimendu ondorengo azterlanetarako eta haien eremu geografikoari dagozkion zentroen ikerketa unizentrikoko proiektuetarako.

2013ko apirilaren 30ean, Plangintza, Antolamendu eta Ebaluazio Sanitarioko zuzendariaren ebazpena argitaratu zen, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Ikerketa Klinikoetarako Batzorde Etikoaren akreditazioa berritza onartu. Ebazpen horretan adierazten zenez, batzordearen jarduketa-eremua urtarrilaren 11ko 3/2005 Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoko Ikerketa klinikoetarako Batzorde Etikoa sortzekoak, 2. artikuluan zehaztutakoa izango zen, eta batzordeak bere gain hartuko zituen EAEn baimendutako biobankuen ikerketa-batzorde etikoen egitekoak, erkidegoan akreditazioa duen ikerketarako batzorde etikorik ez dagoen bitartean.

2015eko abenduaren 24an 1090/2015 Errege Dekretua argitaratu zen (1090/2015 Errege Dekretua, abenduaren 4koa, sendagaiekin egiten diren saiakuntza klinikoak, sendagaien ikerketarako etika-batzordeak eta Azterketa Klinikoaren Espainiako Erregistroa arautzen dituena). Ondoren, 2016ko ekainaren 21ean, Plangintza, Antolamendu eta Ebaluazio Sanitarioko zuzendariaren ebazpena argitaratu zen, zeinaren bidez Euskadiko Medikamentuen gaineko Ikerkuntza Batzorde Etikoaren (E-mIBE) akreditazioa berritza onartzen baitzen. Bertan adierazten zen jarduketa-eremua urtarrilaren 11ko 3/2005 Dekretuaren 2. artikuluan (Euskal Autonomia Erkidegoko Ikerketa klinikoetarako

Batzorde Etikoa sortzen duena) zehaztutakoa izango zela, eta ezartzen zuen Euskal Autonomia Erkidegoan baimendutako biobankuak ikertzeko etika-batzordeen eginkizunak bere gain hartu behar zituela, erkidegoan ikerketarako etika-batzorde egiaztaturik ez zegoen bitartean.

Plangintza, Antolamendu eta Ebaluazio Sanitarioko zuzendariaren 2020ko urtarrilaren 9ko EBAZPENAREN bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Ikerketa Klinikoetarako Batzorde Etikoaren **akreditazioa berritu zen**, jarduketa-eremuari eutsiz eta Euskal Autonomia Erkidegoan baimendutako biobankuak ikertzeko etika-batzordeen eginkizunak bere gain hartuz.

Ondoren, *2020ko otsailaren 20ko EBAZPENA argitaratu zen, Plangintza, Antolamendu eta Ebaluazio Sanitarioko zuzendariarena, 2020ko urtarrilaren 9ko Ebazpena aldatu zuena* (Euskal Autonomia Erkidegoko Ikerketa Klinikoetarako Batzorde Etikoaren akreditazioa berritzea onartzekoa), zuzenketa bat sartzeko.

Azkenik, 2021eko abenduaren 14an, 244/2021 DEKRETUA argitaratu zen EHAAn (*244/2021 Dekretua, abenduaren 14koa, Euskadiko Medikamentuen Gaineko Ikerkuntza Batzorde Etikoa sortzeko eta haren funtzionamendua arautzekoa*). Bertan adierazten denez, E-mIBE Eusko Jaurlaritzako Osasun Saileko Ikerketa eta Berrikuntza Sanitarioko Zuzendaritzari atxikita dago.

2. E-mIBERen GIZA BALIABIDEAK ETA BALIABIDE MATERIALAK

Hauek izan dira Euskadiko Medikamentuen gaineko Ikerkuntzako Batzorde Etikoko idazkaritza teknikoko kide 2021ean:

- Iciar Alfonso, E-mIBEko lehendakariordea, Osakidetzako estatutupeko langilea.
- Rosa María Gutiérrez, E-mIBEko idazkaritzako administrari laguntzailea, Eusko Jaurlaritzako bitarteko langilea.
- Arantza Hernández, E-mIBEko idazkaria, Eusko Jaurlaritzako lan-kontratudun langilea; heren bateko lanaldi-murrizketa du.
- María Rodríguez, E-mIBEko teknikaria, Eusko Jaurlaritzako lan-kontratudun langilea.

3. E-mIBEren OSAERA. KIDEAK BERRITZEA

Memoria honen datara arte eguneratutako kideen zerrenda erantsi da (0. eranskina).

Hona hemen 2021. urtean egin ziren E-mIBEko kideen berritzeak:

- ✓ Euskadiko Medikamentuen Gaineko Ikerkuntza Batzorde Etikoko kideen osaera aldatu eta eguneratzen duen Osasuneko sailburuordearen 2021eko azaroaren 15eko EBAZPENaren bidez, kide berri izendatu zen Miguel Ángel Morán Rodríguez, Medikuntzan lizentziatua (Barne-medikuntzako esp.).
- ✓ Euskadiko Medikamentuen Gaineko Ikerkuntza Batzorde Etikoko kideen osaera aldatu eta eguneratzen duen Osasuneko sailburuordearen 2021eko azaroaren 15eko EBAZPENaren bidez, kide berri izendatu zen Ignacio Garitano Gutiérrez, Medikuntzan lizentziatua (Ginekologia eta Obstetrizia eta Epidemiologiako esp.).

4. E-mIBEK EGIN DITUEN BILERAK

• OHIKO BILERAK

- 2021/01/13 Akta 2021/01 Zoom programaren bidez
- 2021/01/27 Akta 2021/02 Zoom programaren bidez
- 2021/02/10 Akta 2021/03 Zoom programaren bidez
- 2021/02/24 Akta 2021/04 Zoom programaren bidez
- 2021/03/10 Akta 2021/05 Zoom programaren bidez
- 2021/03/24 Akta 2021/06 Zoom programaren bidez
- 2021/04/21 Akta 2021/07 Zoom programaren bidez
- 2021/05/12 Akta 2021/08 Zoom programaren bidez
- 2021/05/26 Akta 2021/09 Zoom programaren bidez
- 2021/06/09 Akta 2021/10 Zoom programaren bidez
- 2021/06/26 Akta 2021/11 Zoom programaren bidez
- 2021/07/14 Akta 2021/12 Zoom programaren bidez
- 2021/07/28 Akta 2021/13 Zoom programaren bidez
- 2021/08/11 Akta 2021/14 Zoom programaren bidez

- 2021/09/15 Akta 2021/15 Zoom programaren bidez
- 2021/09/29 Akta 2021/16 Zoom programaren bidez
- 2021/10/13 Akta 2021/17 Zoom programaren bidez
- 2021/10/27 Akta 2021/18 Zoom programaren bidez
- 2021/11/11 Akta 2021/19 Zoom programaren bidez
- 2021/12/01 Akta 2021/20 Zoom programaren bidez
- 2021/12/22 Akta 2021/21 Zoom programaren bidez

Guztira:21

• **BATZORDE TEKNIKOEN, KALITATE-BATZORDEEN ETA JARRAIPEN-BATZORDEEN BILERAK:**

- Kalitatea:
 - 2021/03/26
 - 2021/06/18
 - 2021/11/19
- Jarraipena:
 - 2021/03/26
 - 2021/06/18
 - 2021/11/19

Guztira:6

5. MEDIKAMENTUEKIN EGINDAKO SAIKUNTZA KLINIKOEN EBALUAZIOA


EBALUATUTAKO SAIKUNTZA KLINIKOEN ZENBAT PROTOKOLOLAN JARDUN DUEN E-mIBek mIBE GISA10

- Aldeko irizpenak.....6
- Aurkako irizpenak 0
- Ebaluazio-prozesuan baztertu diren saiakuntza klinikoak.....1
- Sustatzaileak argibideei zenbat azterlanetan erantzun ez dien.....3

SAIAKUNTZA KLINIKOEN SAILKAPENA

➤ ZENTRO SANITARIOAK:

Onartutako azterlanak zentro hauetan egiten ari dira*:




* Azterlan asko zentro batean baino gehiagotan egiten dira; horregatik, parte hartzen duten zentroen kopurua ebaluatutako azterlanen kopuru osoa baino handiagoa da.

➤ SUSTATZAILEA:

Ebaluatutako 10 saiakuntzetatik, 7 industria farmazeutikoak sustatu ditu, eta hiru, ikertzaileek edo elkarte zientifikoek.


➤ SAIKUNTZEN FASEA:

I.-II. fasea	1
II. fasea	4
III. fasea	2
IV. fasea	3



➤ **SAIAKUNTZEN BEREZITASUNAK:**

Ebaluatutako azterlanak honako espezialitate hauei dagozkie:




*Onkologiako azterlana ebaluaziotik kendu da, eta ez da gauzatu, beraz.

6. PRODUKTU SANITARIOEKIN EGINDAKO IKERKETA KLINIKOKO AZTERLANAK EBALUATZEA

- Ebaluatutako azterlanak.....76
 - Produktu sanitarioekin egindako 66 azterlanen aldeko txostena egin da.
 - Produktu sanitarioekin egindako azterlan 1en aurkako txostena egin da.
 - Argibideen erantzunak jaso ez direlako oraindik txostenik ez duten azterlanak.....8
 - Sustatzaileak ezeztatutako azterlanak1

• **Produktu sanitarioekin egindako ikerketa-azterlanak, zentro sanitarioen arabera sailkatuta**

Gurutzetako Unibertsitate Ospitalea	27	UPV/EHU	2
Donostiako Unibertsitate Ospitalea	18	Gorlizeko ospitalea	2
Arabako Unibertsitate Ospitalea	15	Osakidetzako zerbitzu orokorrak	2
Basurtuko Unibertsitate Ospitalea	12	Bilboko IVI Infertilitate Klinika	2
Galdakao-Usansoloko Ospitalea	8	Zumarragako ospitalea	1
Osasun-zentroak	3	Beste batzuk*	28



* Grafikoa egiterakoan, zerrenda honetan agertzen ez diren beste zentro batzuetan egindako azterlanak «bestelakoak» atalean sartu dira.

- Azterlan asko zentro batean baino gehiagotan egiten dira; horregatik, parte hartzen duten zentroen kopurua ebaluatutako azterlanen kopuru osoa baino handiagoa da.

7. **IKERKETA PROIEKTUEN EBALUAZIOA (lagin biologikoekin eta lagin biologikorik gabe)**


- Ebaluatutako azterlanak 239
 - 204 ikerketa-proiekturen aldeko txostena egin da.
 - 0 ikerketa-proiekturen kontrako txostena egin da.
 - Argibideen erantzunak jaso ez direlako oraindik txostenik ez duten proiektuak 24
 - Ezeztatutako proiektuak..... 11

• **Ikerketa-proiektuak, zentro sanitarioen arabera sailkatuta**

Gurutzetako Unibertsitate Ospitalea	87	Mendaroko ospitalea	4
Donostiako Unibertsitate Ospitalea	67	Debagoieneko Ospitalea	4
Basurtuko Unibertsitate Ospitalea	50	Zumarragako ospitalea	4
Arabako Unibertsitate Ospitalea	48	Osakidetza zerbitzu orokorrak	2
Galdakao-Usansoloko Ospitalea	29	San Eloy Ospitalea	1
UPV/EHU	9	Urdulizko ospitalea	1
Osasun-zentroak	9	Beste batzuk*	55
Biogune IKZ	7		

* Grafikoa egiterakoan, zerrenda honetan agertzen ez diren beste zentro batzuetan egindako azterlanak «bestelakoak» atalean sartu dira.

- Azterlan asko zentro batean baino gehiagotan egiten dira; horregatik, parte hartzen duten zentroyen kopurua ebaluatutako azterlanen kopuru osoa baino handiagoa da.



8. MEDIKAMENTUEKIN EGINDAKO BEHAKETA-AZTERKETAK EBALUATZEA **(MBA)**

2021EAN EBALUAZIORAKO AURKEZTUTAKO BEHAKETA-AZTERLANEN PROTOKOLOEN KOPURUA:84


- ◆ E-mIBEk onartutako azterlanak:69
- ◆ E-mIBERI jakinarazitako azterlanak, 957/2020 Errege Dekretuaren arabera ebaluatzen ez direnak.....15
- ◆ E-mIBEk onartu ez dituen azterlanak.....0
- ◆ Oraindik irizpenik ez duten azterlanak, argibideen erantzunak jaso ez direlako..0
- ◆ Sustatzaileak ezeztatutako azterlanak.....0
- ◆ Elkarte zientifikoek/ikertzaile partikularrek sustatutako azterlanak.....23

- **Medikamentuekin egindako behaketa-azterlanak, zentro sanitarioen arabera sailkatuta**

Gurutzetako Unibertsitate Ospitalea	29	Debagoieneko Ospitalea	2
Arabako Unibertsitate Ospitalea	24	Bizkaiko Osasun Mentaleko Sarea	2
Basurtuko Unibertsitate Ospitalea	24	Osakidetza zerbitzu zentralak	1
Galdakao-Usansoloko Ospitalea	15	San Eloy Ospitalea	1

Donostiako Unibertsitate Ospitalea	21	Arabako Ospitale Psikiatrikoa	1
Osasun-zentroak	3	Beste batzuk	17
Mendaroko ospitalea	2		

- Azterlan asko zentro batean baino gehiagotan egiten dira; horregatik, parte hartzen duten zentroyen kopurua ebaluatutako azterlanen kopuru osoa baino handiagoa da.



9. **BIOBANKUAREN KANPOKO BATZORDE GISA JARDUTEA**

Euskal Biobankuaren kanpoko batzorde gisa jardutea (BIOEF):

- Laginen lagapenak ebaluatzea.....30
23 lagapenen aldeko txostena egin da, eta 2k oraindik ez diete E-mIBEK eskatutako argibideei erantzun. Gainerako 5etan espedientea ezeztatu da.
- Laginen gehikuntzari buruzko ebaluazioa..... 1 (aldekoa)

10. **E-mIBEK EBALUATUTAKO ZUZENKETA GARRANTZITSUAK**

Guztira, Euskadiko mIBEK **183** aldaketa ebaluatu ditu, eta beste 19 aldaketa ez-garrantzitsu gisa erregistratu ditu.

A. Medikamentuekin egindako saiakuntza klinikoak:

Ebaluatu diren **23** saiakuntza klinikoren aldaketetan jardun du E-mIBEk Medikamentuen gaineko Ikerkuntzako Batzorde Etiko gisa. Horietako 6k ez zuten E-mIBEren irizpenik behar, I. zatiaren aldaketak zirelako. Gainerakoetarako, aldeko irizpena eman zen.

B. Produktu sanitarioekin egindako ikerkuntza:

Produktu sanitarioekin egindako azterlanen **40** aldaketa ebaluatu dira, eta 39k aldeko txostena jaso zuten. Beste bat ezetsi egin zuen sustatzaileak.

C. Medikamentuekin egindako behaketa-azterketak (MBA)

Medikamentuekin egindako behaketa-azterlanen **32** aldaketa ebaluatu dira, eta guztiak aldeko txostena jaso zuten.

D. Ikerketa-proiektuak

Ikerketa proiektuen **81** aldaketa ebaluatu dira; horietatik 77k aldeko txostena jaso zuten, eta 3 eskatutako informazioa jasotzeko zain geratu ziren, eta batek aldeko txostena jaso zuen.

E. Biobankua

Euskal Biobankuaren kanpoko batzordearen jardunari dagokionez, E-mIBEk Biobankuarekin lotutako **4** aldaketa ebaluatu ditu 2021ean, eta horietatik 3k aldeko txostena jaso zuten; eta bakarrak, aurkakoa.

11. PRESTAKUNTZA-JARDUERAK

E-mIBEko idazkaritzak prestakuntza hauek eman ditu 2021ean zehar:

- «Normas de Buena Práctica Clínica (BPC)» online ikastaroa antolatu zen, Iciar Alfonso Farnósek zuzendua, EHUren udako ikastaroen barruan. 2021eko maiatzaren 11n hasi eta 2021eko ekainaren 19an amaitu zen.
- «Ikerketaren kontrol etikoa. Interes-gatazka» ikastaroa eman zen. EHUko Farmazia Graduko ikasleentzat. 2021/10/14.

- Pazienteentzako «¿Qué es un comité de ética de la investigación y cómo vela por mis derechos como paciente?» web-mintegia eman zen, 2021eko abenduaren 15ean.

12. EUSKADIKO medikamentuen gaineko IKERKUNTZA BATZORDE ETIKOAREN KALITATEA KUDEATZEKO SISTEMA (E-mIBE)

Barne-auditoria:

2021eko urtarrilaren 15ean, kontratatutako enpresak (Corporación MQM) barne-auditoria egin zuen, eta desbideratze 1 eta 7 ohar hauteman ziren.

2021eko azaroaren 29an, kontratatutako enpresak (Corporación MQM) barne-auditoria egin zuen, eta 1 desbideratze eta 11 ohar hauteman ziren. Barne-auditoriaren data urte amaierara aurreratzea erabaki zen, kanpo-auditoria egiteko denbora gehiago izateko (2022ko otsailean aurreikusia).

Kanpo-auditoria:

2021eko urtarrilaren 27an, AENOREk E-mIBERen kalitatea kudeatzeko sistemaren jarraipenerako auditoria egin zuen, eta emaitza onak izan ziren.

Auditoria-txostenean sistemaren INDARGUNE hauek hauteman ziren:

- Goi-zuzendaritzaren kalitatea kudeatzeko sistemari inplikatzeko.
- Erakundea Covid-19aren ondoriozko aldaketetara egokitzea –izan ere, lana nabarmen handitu da; ikerketa-proiektuak % 34 gehitu dira, eta % 18, saiakuntza klinikoak–; hori dela eta, batzordea hamabost egunean behin biltzen da gaur egun (hilean behin izan ordez), ikertzaileen eskakizunen gehikuntzari erantzun ahal izateko.
- E-mIBE elkarlanean aritu da ICB buletinean Covid 19 ikerketaren ebaluazioa argitaratzeko, 2020ko uztailean, bai eta ANCEI buletinean ere, 2020ko abenduan.

13. AZTERLANEN JARRAIPENA

2021ean 668 jakinarazpen erregistratu dira guztira, eta taula hauetan sailkatu dira, jakinarazpen motaren eta jaso den hilabetearen arabera:

	URTARRILA	OTSAILA	MARTXOA	APIRILA	MAIATZA	EKAINA	UZTAILA
Jasotako azken txostenen kopurua	2	1	6	7	6	3	7
Jasotako urteko txostenen kopurua	6	0	48	11	5	15	4
Jasotako segurtasun-txostenen kopurua	3	3	6	5	6	4	9
Gure zentroetako gertaera kaltegarri larrien jakinarazpenen kopurua	1	1	0	0	1	0	0
Ezeztapen/itxiera aurreratuen kopurua	4	3	2	2	4	0	0
E-IKBEk egindako espediente-itxieren kopurua	0	0	13	0	0	0	0

Desbideratze kopurua	0	0	0	0	2	3	0
Segurtasun-informazioa duten oharren kopurua	2	0	0	0	1	0	0
Emaitzen argitalpena	1	0	13	1	0	4	0
Bestelako jakinarazpenak	23	46	72	34	37	24	0
JAKINARAZPENAK, GUZTIRA	40	54	160	59	62	53	54

	ABUZTUA	IRAILA	URRIA	AZAROA	ABENDUA	GUZTIRA
Jasotako azken txostenen kopurua	2	2	5	4	5	50
Jasotako urteko txostenen kopurua	6	10	9	6	13	133
Jasotako segurtasun-txostenen kopurua	7	2	3	4	4	56
Gure zentroetako gertaera kaltegarri larrien jakinarazpenen kopurua	0	0	0	0	0	3
Ezeztapen/itxiera aurreratuen kopurua	6	2	1	0	0	24
E-IKBEk egindako espediente-itxieren kopurua	0	5	1	0	0	19
Desbideratze kopurua	0	0	1	0	0	6
Segurtasun-informazioa duten oharren kopurua	0	0	0	0	0	3
Emaitzen argitalpena	0	0	2	4	0	25
Bestelako jakinarazpenak	14	17	16	24	11	318
JAKINARAZPENAK, GUZTIRA	35	38	38	42	33	668

14. JARDUNALDI ETA BILTZARRETAN PARTE HARTZEA/KOLABORATZEA

- **Ikerketarako Batzorde Etikoen Elkarte Nazionalaren (ANCEI) VII. Biltzarrean** parte hartzea eta bertaratzea. 2021eko ekainak 2-3 Online: <https://ancei.es/>
- **Medikamentuak Ikertzeko Etika Batzordeen V. Urteko Jardunaldian** parte hartzea. AEMPS. 2021/11/25. Online. Informazio gehiago hemen: <https://www.aemps.gob.es/la-aemps/eventos/2020-eventos/vi-jornada-anual-de-comites-de-etica-de-la-investigacion-con-medicamentos-ceim/>
- **Ikerketaren alderdi etikoei buruzko VI. Biltzarrean** parte hartzea. 2021eko azaroak 23 eta 24. Online. Informazio gehiago hemen: www.aymon.es/congresobioetica2021
- Bioarabako XXII. Ikerketa eta Berrikuntza Jardunaldietan parte hartzea. 2021/11/25. <https://jornadas.bioaraba.org/>
- Datuen Babesari buruzko prestakuntza EAEko Administrazio Publikoarentzat. Eusko Jaurlaritza. Abendua, 2021.

15. EUSKADIKO mIBEren WEB ORRIA EGUNERATZEA

Euskadiko mIBEren webgunea Osakidetza – Euskal Osasun Zerbitzuaren webgunean (https://www.osakidetza.euskadi.eus/r85-pkfarm03/eu/edukiak/informazioa/ikbe_saiakuntza_klinikoak/eu_ikbe/saiakuntza_klinik oak.html) nahiz Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren webgunean (<https://www.euskadi.eus/ikerketa-klinikoetarako-batzorde-etikoa/>) aurki daiteke.

Bi webguneak batera eguneratzen dira eta aldizka eguneratu dira sortu zirenetik, saiakuntza klinikoak, produktu sanitarioekin egindako azterlanak, medikamentuekin egindako behaketa-azterlanak eta ikerketa-proiektuak ebaluatzeko betekizunak eguneratuz, une bakoitzeko beharren arabera.

Azpimarratzekoa da, halaber, E-mIBEren webgunea eguneratzeko egindako ahalegina: ikertzaileentzako albiste, ikastaro, esteka interesgarri eta abarrekin, bai eta batzordeko idazkaritzak horien berri ematea ere.

16. AKORDIOAK BESTE BATZORDE BATZUEKIN

Indarrean jarraitzen dute Euskal Herriko Unibertsitateko (EHU) Etika Batzordearekin hartutako akordioek. Akordio horiek Euskadiko mIBEren webgunean eta UPV/EHUren webgunean daude eskuragarri.

17. E-mIBEren APLIKAZIO INFORMATIKOA

E-mIBEk GIDEC (Saiakuntza eta Batzordeen Kudeaketa Informatizatua) erabiltzen du oraindik kudeatzeko tresna nagusi gisa. Izan ere, 2021ean hobetu egin da aplikazio hori, administrazio-lana arintze aldera.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko ekainaren 8a

Arantza Hernández Gil and.
Euskadiko mIBEko idazkaria
(E-mIBE)

Iciar Alfonso Farnós and.
Euskadiko mIBEko
lehendakariordea (E-mIBE)

Carlos Romeo Casabona jn.
Euskadiko mIBEko
lehendakaria (E-mIBE)

ERANSKINAK

ERANSKINAK

- 0.** 2021eko ABENDUAREN 31n indarrean dagoen E-mIBeko KIDEEN ZERRENDA
- 1.** E-mIBEren AKREDITAZIOAK
- 2.** E-mIBEren BERRAKREDITAZIOAK
- 3.** OSAERAN IZANDAKO ALDAKETAK, EHAAn ARGITARATUAK